


DOCUMENTO _ORDENANZA: 42- Ordenanza fiscal 4 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: NW938-NSD8N-BRGVY Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:37 Página 1 de 7	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

4. ZERGA ORDENANTZA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

AURKIBIDEA:


I. Xedapen orokorrak 1 eta 2 artikulua
II. Zerga egitatea 3tik 5era artikulua
III. Subjektu pasiboak 6 eta 7 artikulua
IV. Salbuespenak 8 artikulua
V. Zerga oinarria 9 artikulua
VI. Zerga kuota 10 artikulua
VII. Sortzapena: noiz eta zergatik sortzen den 11 artikulua
VIII. Kudeaketa 12tik 18ra artikulua
IX. Azken xedapena

4. ZERGA ORDENANTZA

Azken aldaketa Udalbatzak 2020/10/05 eguneko osoko bikura erabakiz
 Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2020/10/14 eguneko 116 zk.an
 Behin betiko azken aldaketa Udalbatzak 2020/12/04 eguneko osoko bikura erabakiz
 Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2020/12/18 eguneko 144 zk.an
 Indarrean sartu: 2021/01/01

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360575 NW938-NSD8N-BRGVY 5718695C08C78FD30EA16D14E96D907B7D48A87) generada con la aplicación informática Firmado. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=29&idoma=1

DOCUMENTO _ORDENANZA: 42- Ordenanza fiscal 4 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: NW938-NSD8N-BRGVY Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:37 Página 2 de 7	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

4. ZERGA ORDENANTZA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Laudio Herriko Etxeak honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat eta uztailaren 19ko 45/1989 Foru Araurekin bat, ebatzi du eta exijitzea du Eraikuntza, Instalazio eta Obra-Lanen gaineko Zerga, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

2. Artikulua.

Ordenantza hau Laudioko udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. Artikulua.


Zerga honen zergapeko egitate da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baldin eta obra- edo hirigintza-lizentzia lortu edo ez, edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu behar bada, eta lizentzia edo kontrol-jarduera Laudioko Udalari badagokio

4. Artikulua.

Zergari loturiko zerga egitateak hurrengoak dira:

- 1.- Oinplano berriko mota guztietako eraikuntzak edo instalazioak eraikitzeo obrak.
- 2.- Mota guztietako eraikinen edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Aldatzeko edo zaharbertitzeko obrak, baldin eta mota guztietako eraikinen edo instalazioen egiturari eragiten badiote.
- 4.- Mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpo itxura aldarazten dutenak.
- 5.- Eraikinen barne antolamendua aldarazten duten obrak, barne antolamendu horren erabilera edozein izanda ere.
- 6.- Lurzoruaren Legeko Testu Bategineko 58. artikuluko 2. apartekoak aipatzen dituen behin-behineko obrak.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 42- Ordenanza fiscal 4 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: NW938-NSD8N-BRGVY Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:37 Página 3 de 7	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360575 NW938-NSD8N-BRGVY 5718695C08C78FD30EA16D14E96D907B7D48A87) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=29&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8.- Lur mugimenduak, adibidez, lur erauzketak, indusketak eta betelanak, salbu eta egintza horiek onetsi edo baimendu den hirigintza edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa xehekaturik eta antolaturik badaude.

9.- Eraikuntzen errauspena, salbu eta hurre-hurreko aurri deklaratu izan direnena.

10.- Aparkalekurako diren zorupeko instalazioak, industri, merkataritza edo lanbide jarduerak, zerbitzu publikoak edo zorupearen beste edozein helburu.

11.- Edozein obra, eraikuntza edo instalazio, baldin eta horiek ahalbide ekonomikoa erakusten duten ekonomi baliabideen inbertsioa sortzen badute eta obretarako edo hirigintzako lizentziari loturik badaude.

5. Artikulua.

Hurrengoak ez dira zerga honi loturik egongo: higiezinaren gainean burutzen diren eraikuntzak, obrak edo instalazioak, baldin eta higiezin horien jabari titulartasuna udal honi badagokio eta obraren jabea bada.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

6. Artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 35. artikulua 3. idatzi-zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak badira, hori egiten ari den higiezinaren jabeak izan ala ez.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoren ondoretarako, eraikuntza, instalazio edo lanaren jabetzat hartuko da eragiketa eta egitateak dituen kostu eta gastuak ordaintzen dituenak.

7. Artikulua.

1. Eraikuntza, instalazio edo lanaren eragiketa subjektu pasibo zergadunak egiten ez duen kasuan, ordeko subjektu pasiboak izango dira dagozkien eraikuntza, instalazio edo lanaren lizentziak eskatzen dituztenak edo eragiketarako burutzen dituztenak.


2. Ordezoak eskatu ahal izango dio zergadunari berak ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

IV. SALBUESPENAK

8. Artikulua.

Ez dute zertan ordaindu behar izango zerga hau honako hauek:

DOCUMENTO _ORDENANZA: 42- Ordenanza fiscal 4 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: NW938-NSD8N-BRGVY Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:37 Página 4 de 7	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Ludio/Llodio
(Araba)
www.ludio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

- a) Estatuia, Autonomia Erkidego, Lurralde Historiko edo Toki Erakundeen jabetzapeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egin ahal izateko, lanak euren kargu egon eta helburua baldin badute errepide, trenbide, aireportu, obra hidrauliko, herrien saneamendua eta barauen hondakin ur beltzenak, nahiz eta lanen kudeaketa Erakunde Autonomoen bitartez burutu, lan horiek inbertsio edo kontserbazio obrak izanik ere.
- b) Arabako Lurralde Historikoko Kontseiluen jabe diren edozein eraikuntza, instalazio edo obra zerbitzu edo erabilera publikora zuzendutakoa.
- c) Monumentu edo monumentu multzo baten zati diren ondasun higiezinetan egindako edozein eraikuntza, instalazio edo obra, hain zuzen ere Euskal Kultur Ondareko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. Artikulua 2. Idatz zatiko a) eta b) letrak aipatzen dituztenak.
- d) 1979ko urtarrilaren 3ko Gai Ekonomikoei buruzko Estatu Espainolaren eta Sede Santuaren arteko Akordioaren aplikazioan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Ituna onartu zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 2. artikuluko 2. atalean xedatutakoaren arabera, edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, balidin eta horien jabea Sede Santua, Apezpikuen Batzarra, Elizbarrutia, Parrokiak eta beste lurralde zirkunskripzio batzuk, Erligio-Ordenak eta -Kongregazioak eta Bizitza Kongsagratuko Institutoak eta beraien probintziak eta beraien etxeak.

V. ZERGA OINARRIA

9. Artikulua.


1. Zerga honen zerga-oinarria eraikuntza, instalazio edo obraren benetako eta egiazko kostua da, hau da, ondore hauetarako, lana gauzatu eta burutzerainoko kostu materiala.
2. Zerga honen zerga oinarrian ez da sartuko Balio Erantsiaren Gaineko Zerga eta erregimen bereziak berez dituzten bestelako antzeko zergak, ezta tasak, prezio publikoak, ezta gainontzekoak ere aipatutako eraikuntza, instalazio edo obrekin zerikusia dutenak herri toki izaerako ondare-prestazioekin, ezta profesionalen lanbide-ordainsariak, ezta kontratistaren enpresa-irabazia, ezta laneko segurtasun- eta higiene-azterlana, ezta kalitate-kontrolako programa ezta benetako exekuzio materialeko kostuaren barruan, zehatz mehatz, sartzen ez den beste edozein kontzeptu ere.

VI. ZERGA KUOTA

10. Artikulua.

1. Zerga honen kuota kalkulatzeko, zerga egitateari adierazten den karga tasa ezarriko zaio. Karga tasa % 4,5 izango da.
2. Eusko Jaurlaritzak sustatu dituen babes publikoko etxebizitzaren eraikuntza kasuan, Ludio Udalak parte eta esku hartzen badu eta Eusko Jaurlaritzarekin dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatu badu, alde zuzeneko ildo horretatik hartu behar den erabakian oinarria hartuta, zerga-tasa % 2 izango da.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 42- Ordenanza fiscal 4 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: NW938-NSD8N-BRGVY Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:37 Página 5 de 7	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07




Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

3. Etxebizitzen kanpo aldeko elementuak birgaitzeko eta konpontzeko (fatxadak, teilatuak, e.a.) Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzetara lotutako etxebizitza eta tradiziozko baserrien eraikinetako obren kasuan, zerga-tasa % 2 izango da.
 4. Babes ofizialeko erregimeneko etxebizitzak eraikitzeko, sustatzaile eta promotorea edonor izanik, zerga-tasa % 2 izango da.
 5. Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzetara lotutako etxebizitza eraikinetan arkitekturazko oztupoak ezabatu eta igogailuak ipintzeko obren kasuan, zerga-tasa % 2 izango da.
 6. Etxebizitza sozialen erregimen juridiko eta ekonomikoaren menpean egindako etxebizitzen promozio kasuan, % 100eko hobariaren ondoriozko kuota aplikatuko zaie, Arabako Foru Aldundiak horretarako baimena ematen badu edo Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko zergan hobari hau ildo honetatik arautzen badu Foru Arau bidez.
 7. Merkatalgune txiker, denda txiki, txikizkako salmenta leku eta antzerakoetan jarduten duten merkataritza aretoak eraberritzeko lanen kasuan, Merkataritza Biziberritzeko Plana PERCO izena duenak, baldin eta Eusko Jaurlaritzak onartzen badu eta PERCO hori indarrean dagoen bitartean, zerga-tipoa, tasa edo oinarria % 2 izango da.
 8. % 95eko hobaria interes berezikotzat edo udal erabilerakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edota obretarako, betiere, interes edota erabilera horiek aitortzeko arrazoi sozial, kultural, historiko-artistikoak edo enplegu-sustapeneakoak badaude, baita gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzeko enpresen eraikuntza, instalazio eta obrak ere.
 9. % 95 hobaria izango dute nork bere kontsumorako eguzki indarraren aprobetxamendu eta ustiapen termiko edo fotoboltaikoa eragiteko sistemak ezartzen dituzten eraikuntza, instalazio eta lanek. Bonifikazio hau izateko baldintza izango da beroa sortzeko instalazioek eskumena eta eskurantzia duen Administrazioaren dagokion homologazioa duten kolektoreak barne izatea.
 10. % 90eko hobaria % 33eko minusbalotasuna edo handiagoa duten eta mugikortasun-zailtasunak zehazteko baremoen arabera (1971/1999 Errege Dekretua, III. eranskina) gutxienez 7 puntu dituzten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak hobetzeko eraikuntza, instalazio edota obren alde eta 65 urte edo gehiago dituzten pertsonen alde, desgaitasunak izan edo ez. Hobari hori ez da aplikatuko igogailua ipintzeko kasuetan, izan ere, berariazko arauak ezarri dira horretarako artikulua honen 5. idatzi-zatian.
 11. % 50 hobaria babes publikoko etxebizitzei dagozkien eraikuntza, instalazio eta obretan.
- Atal honetan aurreikusitako hobaria ezazriko zaio, hala bada kasua, goian aipatu diren hobariak aplitzaren ondoriozko kuotari.
12. Hobariak ez dira aplikagarriak aldi berean.
- Egoera guztietan, hobaria lortzeko, alde zurretiko eskaera egin beharko da.

VII. SORTZAPENA: NOIZ ETA ZERGATIK SORTZEN DEN

DOCUMENTO _ORDENANZA: 42- Ordenanza fiscal 4 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: NW938-NSD8N-BRGVY Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:37 Página 6 de 7	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

11. Artikulua.

Zerga sortuko da eraikuntza, instalazio edo obra hasten den unean, lizentzia egokia lortu ez bada ere.

VIII. KUDEAKETA

12. Artikulua.

1. Manuzko lizentzia ematen denean edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezten denean, behin-behineko likidazio bat egingo da eta zerga egitatea interesatuek aurkezten duten aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aurrekontu hori elkargo ofizial egokiak ikus-onetsi badu; bestela, zerga egitatea udal teknikoek zehaztuko dute proiektua zenbatetsi den kostuaren arabera.

2. Aurreko artikuluan aitortutako edozein hobari emateko baldintza izango da Zerbitzu Publikoen Prestazioa eta Jardueren Eragiketagaritako Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren Eranskinen 1. epigrafean aipatzen diren Hirigintzako Lizentziak Emateagaritako Tasan ehuneko zenbateko berdinez eta zentzu bereko hobaria edukitzea.

13. Artikulua.

Dagokion lizentzia emanda edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztuta, hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko likidazio berri bat egiteko, aldatutako aurrekontuaren arabera, hasierako aurrekontua gainditzen duen zenbatekoan.

14. Artikulua.

1.- Benetan egin diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien benetako kostua ikustean, udal administrazioak, hala denean, administrazio proba egokiaren bidez zerga egitatea aldaraziko du; horrez gain, behin-betiko likidazio egokia egingo du eta subjektu pasiboari obrari dagokion diru kopurua eskatuko edo itzuliko dio.

2.- Aurreko atalean xedatutakoaren ondoretarako, obra amaitu edo horren behin-behineko jasotzea egin eta hurrengo hilabetearen barruan, inguruabar honen aitortzea aurkeztuko da udal administrazioak ematen duen inprimaki batean eta, horrekin batera, obraren zuzendariaren ziurtagiria ere bai; ziurtagiri hori elkargo ofizial egokiak ikus-onetsita egon beharko du, bidezkoa denean, eta obraren kostu osoa ziurtatu beharko du, proiektuaren zuzendaritzagatik eskubideak, industria irabazia, eta obratik sor daitezkeen gainerako kostu guztiak barne.

15. Artikulua.


Zergaren likidazioaren ondoretarako, administrazio isiltasuna ezartzeagatik ematen diren lizentziek beren beregi ematen diren lizentzien eragin berdina izango dute.

16. Artikulua.

Laudio Udalak zerga hau autolikidazio gisa eskatu ahal izango du.

17. Artikulua.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 42- Ordenanza fiscal 4 (eusquera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: NW938-NSD8N-BRGVY Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:37 Página 7 de 7	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Loudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Loudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

Lizentzia baten titularrak edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu duen zergadunak uko egiten badio baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari, Loudioko Udalak, idatziz berariaz uko eginda, egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo erabat baliogabetuko du.

18. Artikulua.

Lizentziaren iraungitze-data pasatu ondoren, Loudio Udalak praktikatu duen kitapena indargabetu eta hobariaren zenbatekoa bueltatzeko eskatuko du, salbu eta titularrak lizentzia berritzea eskatu eta Loudio Udalak onartu.

IX. AZKEN XEDAPENA.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen honako Ordenantza Fiskala, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2020ko urriaren 5 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 4 egunean. Indarrean jarriko da 2021ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Elektronikoki sinatutako dokumentua